

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2434

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 5ekoa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Legutioko (Araba) «Válvulas Villarreal» TZrako deribazioan «4656-03 Villarreal» 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoa berritzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

AURREKARIAK

2021eko urriaren 13an, Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritzak jendaurrean jarri zituen Legutioko udal-mugartereko (Araba) «Válvulas Villarreal» TZrako deribazioan «4656-03 Villarreal» eroale-aldaketa izeneko 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoaren proiektuari dagokion aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera eta ingurumen-inpaktuaren azterketa. Iragarkia 2021eko urriaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (215. zk.) eta 2021eko arazoaren 15eko Arabako Aldizkari Ofizialean (130. zk.) argitaratu zen. Jendaurreko informazioaren izapidea burututa, organo substantiboak egiaztatu zuen ez zela alegaziorik jaso.

Aldi berean, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 37. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, Arabako Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzak eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta-izapidea egin zien. Emaidza espedientean jasota dago. Horri dagokionez, sustatzaileak adierazi du ingurumen-inpaktuaren azterketan kontuan hartu direla eraginpeko administrazio publikoen erantzun-txostenak.

2023ko otsailaren 28an, Arabako Industria Ordezkaritzak eskatu zuen Legutioko (Araba) 13,2 kV-ko «4656-03 Villarreal» aireko linea elektrikoa «Válvulas Villarreal» TZrako deribazioan berritzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoaren arabera.

Eskabidearekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu zen:

- 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoaren proiektua. Izena: «4656-03 Villarreal» eroalea aldatzea Legutioko udal-mugartereko «Válvulas Villarreal» TZrako deribazioan. Arabako probintzia. 2020ko maiatzekoa.
- 13,2 kV-ko tentsio ertaineko aireko eta lurpeko linearen proiektuaren eranskina. Izena: «4656-03 Villarreal» eroalea aldatzea «Válvulas Villarreal» TZrako deribazioan (170023780). Legutioko udallerria. Arabako probintzia. 2022ko maiatzekoa.
- 13,2 kV-ko airetiko linea elektrikoaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketa. Izena: «4656-03 Villarreal» eroalea aldatzea Legutioko udal-mugartereko (Araba) «Válvulas Villarreal» TZrako deribazioan, 2022ko ekainekoa.
- Jendaurreko informazioaren izapidearen emaitzei buruzko dokumentuak.
- Eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulta-izapidearen emaitzei buruzko dokumentuak.

- Proiektuaren azken proposamenean sartzea egindako kontsulten emaitza eta horiek nola hartu diren kontuan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatuta-koaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea. Eta, horrenbestez, ingurumenaren babes-maila handia bermatzen du lege horrek, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikuluan arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek, beste helburu batzuen artean, bermatu behar dute ingurumenaren gaineko eraginaren ondorioen azterketa sartzea plangintza-aren hasierako faseetan, eta, aukera egokienak hautatze aldera, ingurumenari buruzko ondorioei buruzko analisia, kontuan izanik zenbait jardueren ondoriozko eragin metatzaileak eta sinergiakoak.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 41. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan gauzatu nahi diren planek eta proiektuek (publikoak zein pribatuak) ezinbestekoa izango dute ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, baldin eta lege horren I. eranskinen jasota badaude. Legutioko udalerriko (Araba), «Válvulas Villarreal» TZrako deribazioan «4656-03 Villarreal» eroale-aldaketa izeneko 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoaren proiektua arau horren I.B eranskinaren 3.4 epigrafean sartuta zegoen.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legeak arautzen duen ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazio-prozedura eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 33. artikuluan eta hurrengoetan jasota dagoen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko ohiko prozedura baliokidetzat hartu behar dira.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatzeko, Arabako Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzak, organo substantibo gisa, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta egiteko beharrezkoa dena xedatu du. Horretarako, ingurumen-inpaktuaren azterketa bat gehitu du espedientean, kontsulta publikoak egin ditu eta eragindako administrazio publikoek eta interesdunek prozeduran parte hartu dute.

Proiektuaren ingurumen-ebaluazioaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertuta, eta ikusirik ingurumen-inpaktuaren azterketa zuzena dela eta indarreko araudian ezarritako alderdiak kontuan hartzen dituela, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau eman du. Zuzendaritza hori eskumeneko organoa da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera.

Horrenbestez, zenbait xedapen aztertuta –Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak–, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Legutioko (Araba) «Válvulas Villarreal» TZrako deribazioan «4656-03 Villarreal» 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoa berritzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik.

Bigarrena.– Baldintza hauek ezartzea proiektua gauzatzeko (lotesleak dira, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78.1 artikuluan xedatzen denaren arabera):

A) Ingurumen-ebaluazio hau aipatutako proiektuaren sustatzaileak aurkeztutako dokumentazio honen gainean egina dago:

- 13,2 kV-ko tentsio ertaineko aireko eta lurpeko linearen proiektuaren eranskina. Proiektuaren izena: «4656-03 Villarreal» eroale-aldaketa, «Válvulas Villarreal» TZrako deribazioan (170023780). Legutioko udalerrria. Arabako probintzia. 2022ko maiatzekoa.

- Ingurumen-inpaktuaren azterlana, 13,2 kV-ko airetiko linea elektrikoaren proiektu honi buruzkoa: «4656-03 Villarreal» eroale-aldaketa, Legutioko udal-mugarterako (Araba) «Válvulas Villarreal» TZrako deribazioan. 2022ko ekainekoa.

Proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzan aurkeztutako dokumentazioaren arabera gauzatuko da proiektua, eta, nolahi ere, ebazpen honetan zehaztutakoaren arabera.

Proiektu honen ingurumen-inpaktuaren ebaluaziori buruzko prozedurak, proiektuaren sustatzaileak aurkeztutako dokumentazio teknikoaz gain, kontuan izan du espedientean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko prozeduraren aldietan erantsitako txostenen edukia.

B) Proiektua aldatzen edo zabaltzen bada, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Proiektuan egingo diren aldaketa puntualak arrazoitu egin beharko dira ingurumenaren ikuspegitik, aurreko apartatuan adierazitako garrantzirik ez badute ere. Proiektuari egiten zaizkion aldaketak honako hauetan jasoko dira: babes- eta zuzenketa-neurrietan, ingurumen-zaintzako programan, aurrekontuan eta baldintzen agirian.

C) Ingurumen-ebaluazioko prozeduraren alderdi garrantzitsuak.

C.1.– Proiektuaren xedea eta haren egintza nagusien deskripzioa.

Proiektuaren xedea linea elektrikoa berritzea da, «4656-03 Villarreal» 13,2 kV-ko aireko linea elektrikoaren eroalea ordeztuz, 24. euskarriaren eta «Válvulas Villarreal» TZaren arteko aireko tartean, Legutioko udal-mugarterean (Araba), erabiltzaileei zerbitzuaren kalitatea eta jarraitutasuna bermatzeko eta hegazti-faunaren babesari buruzko araudia betetzeko. Gaur egun, proiektuaren xede den linea osoa airez doa. Ordeztu nahi den linea-tarteak 1.349 m-ko luzera du.

Proiektuaren hasierako bertsioak, ingurumen-inpaktuaren azterketarekin batera, jendaurreko informazioaren izapidea eta eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko izapidea bete zituen, eta berritu beharreko linea osoaren aireko trazadura planteatzen zuen, 19 euskarri desmuntatzea, 8 euskarri berri jartzea eta linearen trazadura osoan zehar eroalea aldatzea barne, 1.349 metroko luzeran.

Linea elektrikoaren trazadura bat dator Natura 2000 Sarean, ES2110011 «Sistemako Urtegiak/ Embalses del sistema del Zadorra» Kontserbazio Bereziko Eremuan eta haren Babes Eremu Periferikoan integratutako espazio batekin.

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak eta Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak bidalitako txostenak aztertu ondoren, sustatzaileak hasierako proiektua aldatu du, eta linearen trazaduraren zati handi bat lurpekoa izango da, hegazti-faunari kalterik ez eragiteko. Aldaketa horiek dokumentu honetan jasota geratu dira: «13,2 kV-ko tentsio ertaineko airetiko eta lurpeko linearen proiektuaren eranskina, izena: 4656-03 Villarreal eroalearen aldaketa», Válvulas Villarreal «(170023780) TZrako deribazioan, Legutioko udalerría, Arabako probintzia», 2022ko maiatzekoa, bai eta ingurumen-inpaktuaren azterketaren bertsio berrian ere, 2022ko ekainekoa.

Trazadura berri horrekin, Zadorrako urtegiak KBEan izan ditzaketen ondorioak asko murriztuko dira, batez ere linearen funtzionamendu-fasean, hegaztientzako eragin handia izan lezakeen aireko linea baten zati bat kenduko baita.

Aldatutako proiektuak honela definitzen du aireko eroalearen aldaketa: 24. euskarriaren eta N1029 euskarriaren artean, eta linea elektrikoa lurperatzea, N1029 euskarritik «Válvulas Villarreal» transformazio-zentroraino (170023780). Proiektatutako lineak 13,2 kV-ko potentzia eta 1.545 m-ko luzera du guztira. Trazaduraren zati bat airekoa da, eta beste zati bat, gehiena, lurpekoa.

Aireko tartekak 490 metroko luzera du, eta jarduketa hauek barne hartzen ditu:

- Hiru euskarri berri jartzea (N1023, N1024 eta N1029 zenbakiak).
- Hegaztiak elektrokuziotik babesteko egokitutako metalezko gurutzetak instalatzea N1024, 1028, N1029 euskarrietan.
- Eroale berria jartzea 24. deribazio-euskarriaren eta N1029 euskarri berriaren artean; guztira 490 metroko luzera izango du zirkuitu bakunean.
- Lur-konexio berria eraztunean eta hormigoizko espaloi perimetrala egitea N1029 zenbakiko euskarri berrian.
- Talken aurkako balizak jartzea 20 metrotik behin, aurreikusitako baoen eroaleetan.
- 21 euskarri desmuntatzea.
- 24. eta 1029. euskarrien artean eta 1031. eta 1044. euskarrien artean dagoen linea desmuntatzea. Zirkuitu bakuneko 1.187 metroko luzera desmuntatu behar da guztira.
- Linea desmuntatzea 1029. eta 1031. euskarrien artean, luzera zirkuitu bakuneko 163 metrokoa dela.
- Euskarri bakoitzaren oinetan lanerako plataformak jartzea. Horietako bakoitzak 50 m²-ko azalera izango du, gutxi gorabehera.

Lurpeko tartekak 1.055 m-ko luzera du, eta N1029 euskarri berritik Válvulas Villarreal transformazio-zentroraino hedatzen da. Kanalizazioa zuzenean lurperatuta edo tutuztatuta egongo da. Trazadura elektrikoa hartzen duen zanga egiteko, transformazio-zentroraino doan bidea erabiliko da.

C.2.– Proiektuaren eragin-eremuaren ezaugarri nagusiak.

Lehen adierazi den bezala, linea elektrikoaren trazadura bat dator Natura 2000 Sarean integratutako espazio batekin, «Zadorraren sistemako urtegiak» ES2110011 Kontserbazio Bereziko Eremuarekin (aurrerantzean, KBE) eta haren Babes Eremu Periferikoarekin (aurrerantzean, BEP). Linearen 155 m KBEaren barrualdetik igarotzen dira, eta gainerakoa BEPtik.

Proiektuaren eremuan, Batasunaren intereseko habitat hauek daude:

- 6510. Altitude baxuetako sega-belardi txiroak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*):
- 92A0 Galeria-basoak, *Salix alba* eta *Populus alba* espezieekin.

KBEa Interes Bereziko Eremu gisa kalifikatuta dago bisoi europarrarentzat eta igarabarentzat. Bi espezie horiek Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan sartuta daude, galtzeko arriskuan dauden espezie gisa, eta Araban dagozkien kudeaketa-planak dituzte (880/2004 Foru Agindua, urriaren 27koa, Arabako Lurralde Historikoan *Lutra lutra* (Linnaeus 1758) Kudeaketa Plana onartzen duena).

322/2003 Foru Agindua, azaroaren 7koa, Arabako Lurralde Historikoan *Mustela lutreola* Bisoi Europarra Kudeatzeko Plana onartzen duena.

Era berean, proiektuaren eraginpeko eremua Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak (Santa Engrazia urtegia/Urrunagako urtegia) EA11 kodearekin katalogatutako eremuen barruan dago.

Gainera, Urrunagako urtegia giza kontsumorako urak biltzeko eremutzat (2020/2184 Zuzentaraua) eta eremu sentikortzat (91/271/EEE Zuzentaraua) hartzen da.

Proiektuaren eremua paisaia bikaintzat jotzen da (Urrunaga, 58. kodea), Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoaren arabera.

Proiektua Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Agindua-ren ondoriozko babes-eremuen barruan geratzen da. Agindu horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira, eta hegazti-faunaren babes-eremuak –non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatze edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira– argitaratzen dira, abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretua (Abifauna goi-tentsioko linea elektrikoetan ez elektrokutatze edo talka ez egiteko neurriak ezartzen dituen) aplikatuz.

Arriskuei dagokienez, ez da uholde-arriskuko eremurik identifikatu aztertutako itzulkinetarako, eta akuiferoak kutsadurarekiko duen kalteberatasuna txikia da.

Bestalde, proiektatutako linearen exekuzioaren ondo-ondoko eremuan ez dago katalogatutako ondare-ondasunik, baina inguruetan ustezko arkeologiako hiru gune daude: makina-etxearen asentamentua, Useposu E. asentamentua eta Andre Mariaren baseliza, Legutianoko (Araba) Balizko Arkeologia Guneen Izendapena egiten duen Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 1997ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren arabera.

C.3.– Aurreikus daitezkeen ingurumen-ondorioak.

Aztertutako dokumentazioaren eta kontsultatutako administrazio publikoek bidalitako txostenen arabera, linea elektrikoaren aldaketak eragindako inpaktu nagusiak lurpeko kanalizaziorako zangak irekitzearekin eta aireko zatiko landare-diaren gaineko eraginarekin lotuta daude. Kasu honetan, linearen zati handi batean lurpeko trazadura bat hartzeak, eta, bereziki, Zadorraren sistemako urtegiak ES2110011 KBEaren barruan dagoen tartean, nabarmen murrizten du sortutako inpaktuen

magnituda, bereziki Natura 2000 Sarearen gainekoa. Gainera, aireko tarteak laborantza-eremuak zeharkatzen ditu batez ere, eta ez du inausketarik behar; beraz, egungo landaredia berreskura daiteke obra-fasearen ondoren.

Proiektuak barne hartzen du linearen aireko tartearen egokitzea hegaztien elektrokuzioa eta balizatzea saihesteko, talkak saihesteko, eta neurri zuzentzaileak ezartzea hegaztien talka eta elektrokuzioa saihesteko, hala nola zubiak, eroaleak, grapak eta fusible-buruak eta talken aurkako balizak estaltzea 20 metrotik behin eroaleetan.

Proiektua gauzatzearekin lotutako lur-mugimenduak oso txikiak dira; hala, ingurumen-inpaktuaren azterketaren arabera, indusketa-bolumena 230 m³-koa baino ez da. Obra gauzatzeko okupazio-azalera 150 m² ingurukoa da proiektatutako 3 euskarri berriak instalatzeko lan-plataformetarako, eta 306 m² ingurukoa sarbide berriak egokitzeko. Ez da beharrezkoa izango materialak pilatzeko espazio gehigarria okupatzea; izan ere, materiala euskarri bakoitzaren oinean bilduko da, eta lan-plataformek materiala pilatzeko aldi baterako eremu gisa jardungo dute.

Egungo eroalea eta kendu beharreko euskarriak desegitearen ondorioz, beste hondakin garrantzitsu batzuk sortuko dira, eta baimendutako kudeatzaileak kudeatuko ditu.

Kendu beharreko 1042. zenbakiko euskarriaren egoera dela eta, urtegiko ur-laminatik oso hurbil dagoena, litekeena da urtegitara solidoen ekarpenak egitea, baina horien kopurua murriztu egingo da, eta neurri zuzentzaileak hartuz ekidin daiteke.

Dagoen linearen berritze bat denez, lursailen gaineko azken okupazioa murriztu egiten da egungo egoeraren aurrean; izan ere, 21 euskarri kentzen dira eta 3 euskarri berri instalatzen dira, ordeztzen dituzten euskarriak baino altuagoak direnak, eroalearen eta lurzorua arteko distantziak handituz, eta horrek erraztu egiten ditu lursailen makineria-lanak. Horregatik guztiatik, proiektuak eragindako nekazaritza-ustategien gaineko eragina murriztu egingo dela esan daiteke.

Instalazioek istripu larrien edo hondamendien aurrean duten kalteberatasunari dagokionez, adierazi behar da mota horretako instalazioak sute-fokuak izan daitezkeela; arrisku horren aurrean, horiek minimizatzeko neurriak hartzen dira, eta arlo horretan indarrean dagoen legeriak ezartzen ditu neurri horiek.

D) Babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.

Babes- eta zuzenketa-neurriak gauzatzean, honako hauetan ezarritakoa bete beharko da: indarrean dagoen araudian xedatutakoa, hurrengo apartatuetan adierazitakoa, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, sustatzaileak organo substantiboaren bidez Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoa.

Neurri horiek eta kontrolerako izendatutako langileek ingurumen-inpaktuaren azterketan ezarritako kalitate-helburuak eta ingurumen-inpaktuaren adierazpen honetan ezarritakoak bermatu beharko dituzte.

Neurri hauek guztiak obra kontratatzeke baldintza-pleguetan sartu beharko dira, eta baldintza horiek betetzen direla bermatuko duen aurrekontua ere izan beharko dute.

Hurrengo apartatuetan adierazten diren neurriak gehitu beharko dira.

D.1.– Natura-ondarea babesteko neurriak.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak egindako txostenaren arabera, obren zuinketarako data bat ezartzeko eta ingurumen-jarraipen egokia egiteko, sustatzaileak

abisatuko dio, gutxienez 15 egun lehenago, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzari, «Zadorraren sistemako urtegiak» ES2110011 KBEko Natura 2000 Sarea izeneko gunearen organo kudeatzailea denez gero.

Era berean, eta aipatutako txostenarekin bat etorritz, honako neurri hauek hartuko dira:

a) Lineari eta euskarriei talken eta elektrokuzioen aurkako elementuak jarri beharko zaizkie. Abifauna babesteko neurriek bete beharko dute Abifauna goi-tentsioko linea elektrikoekin talka egiteaz edo elektrokutatzeaz babesteko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan ezarritakoa.

b) Ingurumen-inpaktuaren azterketan proposatutako talken aurkako elementuak kendu, eta, haien ordeaz, talken aurkako elementu islatzaile birakariak jarri beharko dira.

c) Lanak hasi aurretik, sarbideak eta pilaketak balizatu eta mugatu behar dira. Pilaketak eginez gero, eremu sentikorrek saihestuko dira, hala nola ibaiertzak, hezeguneak, istilak, zuhaixka-hes-kaiak eta abar. Nolanahi ere, Natura 2000 Sarearen eremutik eta haren eragin-eremutik kanpo kokatuko dira.

d) KBEan eta bisoi europarraren interes bereziko eremuan, debekatuta dago espezie horren ugaltze-aldi kritikoetan proiektatutako lanak egitea, martxoaren 15etik uztailaren 31ra bitartean.

e) Linea elektrikoko lurretan egin beharreko sastraka-kentzeak, mozketak edo inausketak, baso-lur zuhaizdunei eragiten dietenak, lehenik dagoen korridore elektrikoaren mantentze-lanetara mugatuko dira.

f) Galtazueta errekaen edo urtegiko ur-laminaren ibilguaren barruan debekatuta dago makina astunak ibiltzea, eta zortasun-eremuan eta urtegitik hurbilen dauden 15 metroetan ezinbesteko gutxienez mugatuko da.

g) Sarbideak lehenik dauden bideetatik, lanerako lurzatietatik eta aldatu beharreko linearen zortasun elektrikoetatik egingo dira. Debekatu behar da bide berriak irekitzea aldeztu aurretik baimenik eskatu gabe. Bideak KBEko eremu babestutik kanpo jarriko dira beti.

D.2.– Uraren eta ur-baliabideen kalitatea babesteko neurriak.

Uren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, jabari publiko hidraulikoan, zortasun-eremuetan (5 metro) eta zaintza-eremuetan (100 metro) egiten den jarduera orok, bai eta hondakin-urak lurrera edo ibilgu publikoetara isurtzeak ere, Arroko Erakundearen nahitaezko baimena beharko du, Uraren Euskal Agentziak izapidetu ondoren. Baimen horren esparruan aztertuko dira, zorrozki, egin beharreko obrak, eta, hala badagokio, dagozkion aginduak ezarriko.

Esandakoa gorabehera, honako neurri hauek hartuko dira:

a) Oro har, eraikuntza-fasean, ahalik eta efluente kutsatzaile gutxien sortuko da, eta ahalik eta material xehe eta gai kutsatzaile gutxien isuriko da drainatze-sarera.

a) Obrako makinen parkea eduki behar izanez gero, makineria horren mantentze-eremua drainatze naturaleko saretik isolatuko da. Zola iragazgaitza eta efluenteen bilketarako sistema bat izango ditu, olioek eta erregaiek ez ditzaten lurzorua eta ura kutsatu. Erregaien zamalanak, olio-aldaketak eta tailerreko jarduerak ezin izango dira horretarako adierazitako eremuetatik kanpo egin.

c) Biribilki moduko hidrokarburoen material xurgatzaile espezifikoa edo material pikortatua eta abar jarri beharko da eskura obretan, ustekabeko isuri edo ihesen bat gertatuz gero berehala aplikatu ahal izateko.

d) Ingurumen-inpaktuaren azterketan deskribatu diren berariaz egokitutako eremuetan garbituko dira hormigoi-upelak. Hormigoi-esnea inola ere ezingo da isuri ibilgura.

e) Obrak dirauen bitartean, garbiketa-lanen kontrol zehatza egingo da ibilgailuak igaro ondoren, bai proiektuaren zuzeneko jarduera-eremuan eta eragindako ingurunean, bai iristeko bideetan eta, bereziki, biztanleguneen inguruetan. Beharrezkoa bada, obrek eragindako lursailetan ureztatze-sistema bat ezarriko da.

D.3.– Lurzoruaren kalitatea aurreikusitako erabilerekin bateragarria dela bermatzeko neurriak.

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten leku gehiago aurkitzen badira obrak gauzatzean, edo lurzorua kutsatzen duten substantziak daudela pentsatzeko arrazoi sendoak baldin badaude, Lurzorua ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzeko Legean (ekainaren 25eko 4/2015) ezarritakoa bete beharko da.

D.4.– Hauts-emisioak murrizteko neurriak.

a) Lanek dirauten bitartean, ibilgailuak igaro ondorengo garbiketa-lanak zorrotz kontrolatuko dira, bai jarduketan eraginpean hartutako ingurunean, bai obretara sartzeko guneeetan. Sistema bat eduki beharko da aldi baterako hutsik dauden pistak eta inguruak ureztatzeko.

b) Indusketatik ateratako materiala hezetasun-baldintza egokienetan garraiatuko da, zama estaltzeko gailuak dituzten ibilgailuetan, lokatzak eta partikulak barreia ez daitezen.

D.5.– Zarataren eta bibrazioen ondorioak gutxitzeko neurriak.

a) Lanek dirauten bitartean, jardunbide egokiak aplikatu beharko dira sorburuan zaratak murrizteko, bereziki hondeaketa, eraispen, zamalan eta garraio lanetan, baita erabilitako makinariaren mantentze lanetan, zaraten eta bibrazioen murrizketan, eta erabilitako ekipoen zaraten kontrolean ere.

b) Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakatzeko akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren soinu-emisioei buruz indarrean dagoen legerian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, eta hala badagokio, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakora.

c) Bestalde, proiektua garatzerakoan, eraginpeko eremuan obrek sorrarazitako zaratarengatik ez dira gaindituko kalitate akustikoaren helburuak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarrita daudenak, hori guztia dekretu horretako 35. bis artikuluan aurreikusitakoari kalterik eragin gabe.

d) Egunez bakarrik egingo da lan.

D.6.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Proiektuaren gauzatze- eta funtzionatze-faseetan zehar sortutako hondakinak Ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta arautegi zehatzetan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurren-

kerari jarraituz kudeatu behar dira; hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea, balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne, eta, azkenik, deuseztatzea.

Hondakinak ezabatzeko, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik behar bezala justifikatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria haiek balorizatzea.

b) Espresuki debekatuta dago sortzen diren hondakin mota ezberdinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorrian bertan bereiziko dira, eta hondakinak biltzeko eta biltegitratzeko bitarteko egokiak jarriko dira, nahasketarik ez gertatzeko.

c) Zabortegira bidali beharreko hondakinak zabortegietan utziz ezabatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuan eta Hondakinak zabortegietan utziz ezabatzea eta betegarriak egikaritzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera ere kudeatuko dira.

d) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak independenteak izango dira, baldin eta, tipologia dela eta, isurketa baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete. Orobat, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan hondakinak biltegitratzeari, nahasteari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruz ezarritako betebeharrak bete beharko dira, eta itxita egongo dira kudeatzaile baimendu bati entregatu arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezela.

Aurrekoaren haritik, eremu jakin bat egokituko da hondakin arriskutsuak aldi batean pilatzeko, hala nola olio-potoak, iragazkiak, olioak eta pinturak. Gainera, hondakin geldoak biltzeko berarriazko edukiontzia jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneeetatik bereizita.

Aipatutako ontziak edo bilgarriak argi eta modu irakurgarri eta ezabaezinean etiketatu beharko dira, baita indarreko araudiaren arabera ere.

e) Apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 29. artikuluari eta Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraikiz kudeatuko da industria-olio erabilia.

Olio erabilia, kudeatzaile baimendu bati eman arte, estalpean utziko dira behar bezala etiketatutako depositu estankoean; zola iragazgaitz baten gainean egon beharko dira, kubo txikietan edo ihes eta isuri posiblei eusteko sistemen barruan.

f) Araudi hori betetzea errazagoa izan dadin, lanen ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatu beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistemak, eta haien ardurak izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereiziki, erregai eta produktuak biltegitratzean ez dira inola ere efluente kontrolatu gabeak sortuko makinen mantentze-lanak egitearen edo hondakinak erretzearen ondorioz.

D.7.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa gorabehera, obra egiterakoan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, lanak eten egingo dira badaezpada, eta berehala jakinaraziko zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura Departamenduari; hark erabakiko du zer neurri hartu.

Edonola ere, proiektuaren eragin-eremuan kultura-ondarea zaintzarekin zerikusia duten jarduerak guztiak Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailak bere eskumenen esparruan ezartzen duenaren arabera egingo dira.

D.8.– Paisaia babesteko eta eragindako lekuak leheneratzeko neurriak.

Obran paisaia integartzeko lanak eragindako eremu guztietan egingo dira. Ingurumen-lehengoratzearan sartuko dira luraren berroneratze geomorfologikoa eta edafikoa, bai eta landare-estalkia izan dezaketen guneen landareztatzea ere.

Obra kontratatze baldintzen agiriak eta aurrekontuek barne hartu beharko dituzte proposatutako birlandatze-jarduketak behar bezala betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren baldintza teknikoak eta aurrekontu-partidak.

Lehengoratzearan horiek iraun bitartean, ekintzak gauzatuko dira landare inbaditzaileak zabaltea eragozteko –hala nola, *Cortaderia selloana*, *Robinia pseudoacacia*, *Fallopia japonica*, *Buddleja davidii*, *Arundo donax* eta beste–. Ildo horretan, bereziki kontrolatuko da landare-estalkia leheneratzeko lurren jatorria, eta, ahal dela, ez da erabiliko horrelako espezieek kutsatu ahal izan duten lurrik.

Era berean, ahal den guztietan, espezie inbaditzaile horiek errotik kenduko dira jarduera-gunetik.

Ingurua leheneratu ondorengo bi urteetan, mantentze-lanak egingo dira: lurra aitzurtu, ongarritu, ureztatu eta hutsarteak landareberritu.

D.9.– Garbiketa eta obra bukatzea.

Obrak bukatu ondoren, garbiketa-kanpaina zorrotz bat egingo da, eta proiektuak erasandako eremua obrako hondakinik batere gabe utzi beharko da. Hondakinak lan-eremutik aterako dira, eta, haiek kudeatzeko, ebazpen honen D.6 apartatuan xedatzen dena aplikatuko da.

D.10.– Ingurumen-aholkularitza.

Obrak amaitu arte eta obra horren bermeak dirauen arte, ingurumen gaietan, kultura-ondarearen zaingoan eta babes- eta zuzenketa-neurrietan, aholkularitza gaitua eduki beharko du obraren zuzendaritzak, ingurumen-inpaktuaren azterketako zehaztapenen arabera. Obraren Zuzendaritzak ebazpenik eman behar badu baldintza-agiriak horrelako gaien inguruan esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, aholkulariek txosten bat egingo dute aurrez.

D.11.– Lan-programaren diseinua.

Lanak hasi aurretik, kontratistak proposamen zehatzak egingo ditu ondoko gaiei buruz, gutxienez.

Lanak egiteko programari erantsiko zaizkie, eta lanen zuzendariak berariaz onartuko ditu –aurrez, txosten bat egingo du aurreko atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzak–. Dokumentu hauek bilduko ditu aipatutako programak:

– Lan-eremuetarako sarbideen kokapenaren eta ezaugarrien xehetasuna (xehetasun-kartografia barne): oinplanoa, luzetarako eta zeharkako profilak, lur-mugimenduak eta sortutako ezpondak.

– Kontratistaren instalazio-eremuen kokapenaren eta ezaugarrien xehetasuna, hala badagokio, honako hauek barne hartuta: pilaketan aldi baterako kokapena, makineria-parkeak, instalazioak eta materialak, ibilgailuak garbitzeko eremuak eta beste edozein egitura mota.

– Eraikuntza- eta eraispen-lanetan sortzen diren hondakinak kudeatzeko plana, honako hauek errespetatuta: Eraikuntza- eta eraispen-lanen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren 5.1 artikulua; Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 7. artikulua.

E) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena Zaintzeko Programa gauzatzeko, kontuan hartuko da sustatzaileak proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoa, bai eta, hala badagokio, dagozkion baimenetan ezarritakoa ere.

Programa hori obra kontratatzeke baldintza-agirietan sartuta egon behar da, eta bete ahal izatea bermatuko duen aurrekontuaz hornituko da.

Kontrol hauek egingo dira:

E.1.– Obraren okupazio-mugak kontrolatzea.

Egindako okupazioa proiektuko aurreikuspenekin bat datorrela egiaztatuko da; obrek ez dute hartuko aurrez ikusitako azalera baino eremu handiagoa.

E.2.– Leheneratzearen arrakasta kontrolatzea.

Ustiapena amaitu ondoko bi urteetan, aldizkako jarraipena egingo zaio proiektuak eragindako eremuen lehengoratzek izan duen arrakasta-mailari.

E.3.– Gorabeherak erregistratzea.

Ustiapenean zehar izandako gorabeherak erregistratu beharko dira, eta babes- eta zuzenketa-neurriak zenbateraino bete diren jaso. Erregistro hori eskuragarri egon beharko da, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak ikuska dezan. Proiektua gauzatzean aldaketak egin badira, xehetasunez dokumentatu beharko dira. Ingurumenean duten eraginaren ikuspegitik justifikatu behar dira aipatutako aldaketak.

E.4.– Ingurumen-zaintzako programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumen-zaintzako programaosatzen duten azterketa eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta organo substantiboaren bidez bidaliko dira Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzara. Obrak bukatu eta lehengoratzelanean berme-aldia amaitutakoan bidaliko da txosten hori.

Proiektuaren sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez, eta datu horiek administrazio publikoen ikuskaritza-zerbitzuen eskura jarriko dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango kasu bakoitzean aplikagarri den araudia betetzeko.

F) Baldin eta arautegi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala eginarazten badigute, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumen-zaintzako programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai eta neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere.

Ingurumen-organoak, era berean, alda ditzake babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumen-zaintzako programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta eta organo substantiboaren bidez, edo ofizioz. Hori guztia, ingurumen-zaintzako programan lortutako emaitzetan oinarrituta egingo da, edo ingurumen-inpaktuak saihesteko ezarri diren babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak nahikoa ez direla egiaztatzen bada.

Hirugarrena.– Lau urteko epea jartzen da proiektua egikaritzen hasteko, ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igaro eta artean ez bada hasi proiektua exekutatzeko, ingurumen-inpaktuaren adierazpen honen

iraunaldia amaituko da, eta dagozkion ondoreak sortzeari utziko dio. Kasu horretan, sustatzaileak berriro hasi beharko du proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko izapidea, aipatu epea luzatzea adosten ez bada behintzat. Hori guztia, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, proiektuaren sustatzaileak aldeztatik jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari, organo substantiboaren bitartez, zer egunetan hasiko den proiektua gauzatzen.

Bosgarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Arabako Industria Administrazioako Lurralde-Ordezkaritzari eta I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU sustatzaileari.

Seigarrena.– Ingurumen-inpaktuaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 5a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
JAVIER AGIRRE ORCAJO.